

BELAKO ZALDUNA

LEHEN PEREDIKUA

1
Botzik agurtzen zütüegü
ikusle maitagarriak
Honat jinik zer saldoan
historiaz egarriak.

2
Belako zaldüna nor zen?
jente gütik balakike
Trajeria honen bidez
zerbait gogoan badüke.

3
Maule Gainean sortürrik
hamazortzi urte altean
Xiberotik abiatü zen
sartzeko artillerian.

4
Armadan lehen ürratsak
zinez gogor dirateke
Bena güdari distirant
ezagütürrik dateke.

5
Gerla, güdüka, badüke
eresuma hanitxetan
Presontegi edo auzi
üsü ondoramenetan.

6
Hala ere honi esker
mila Eüskaldün güdari
Eta kanu baliatüren
erregeren armadari.

7
Kontesa batekilan dü
eginen bere bizia
Alaba bat izanen da
bien arteko frütüa.

8
Armada ützi ondoan
sartüko da Xiberoan
Eta idazlan sortüren
eüskal fedea gogoan.

9
Xiberoko biltzarrean
zaintüko dütü oihanak
Bai eta Santa Grazin
parropiako lürren mügak.

LEHEN PEREDIKUA

1
Pozik agurtzen zaituztegu,
ikusle maitagarriak.
Honat jinik, zer saldoan!,
historiaz egarriak.

2
Belako zalduna nor zen
jende gutxik balekike,
tragedia honen bidez
zerbait gogoan baduke.

3
Maule Gainean sorturik,
hamazortzi urte aldean
Xiberotik abiatu zen
sartzeko artillerian.

4
Armadan lehen urratsak
zinez gogor dirateke,
baina gudari distirant
ezaguturik dateke.

5
Gerra, guduka baduke
erresuma anitzetan.
Presondegi edo auzi,
usu ondorenetan.

6
Hala ere, honi esker
mila euskaldun gudari
eta kanoi baliatuko
erregeren armadari.

7
Kondesa batekin du
eginen bere bizia.
Alaba bat izanen da
bien arteko fruitua.

8
Armada utzi ondoan
sartuko da Xiberoan,
eta idazlan sorturko
euskal fedea gogoan.

9
Xiberoko Biltzarrean
zainduko ditu oihanak,
bai eta Santa Grazin
parropiako lurren mugak.

jin: etorri
saldo: talde

tragedia: pastoral
duke: izango du

sortu: jai

dirateke: izango dira
distirant: distiratsu
dateke: izango da

duke: izango du

usu: sarritan
ondoren: ondorio

oihan: baso

10

Gero Pauen bizitzean
alaba zaio ezkontüren
Eta bere idazlanak
ederki aitzinatüren.

11

Frantziako erresuman
iraultza heltzen delarik
Paueko gaztelütik
dateke kanporatürrik.

12

Hontarzünak bahitürrik
berriz date zerratürrik
Kontesa zentü ondoan
itzali zen xahartürrik.

13

Entzün ditzagün goxoki
so egile agurgarriak
Aktür horien erranak
beitira gozagarriak.

10

Gero, Pauen bizitzean,
alaba zaio ezkonduko,
eta bere idazlanak
ederki aitzinatuko.

11

Frantziako erresuman
iraultza heltzen delarik,
Paueko gaztelutik
dateke kanporaturik.

12

Ondasunak bahiturik
berriz dateke zerraturik.
Kondesa zendu ondoan,
itzali zen zahaturik.

13

Entzun ditzagun gozoki,
so-egile agurgarriak,
aktore horien erranak
baitira gozagarriak.

aitzinatu: bultzatu,sustatu

dateke: izango da

zerratu: kartzelatu
ondoan: ondoren

so-egile: ikusle

Satanak su emaile**Zarpail****14**

Zer kontatzen dūn Bizkarroi
noblezia ikusirik
Entzūn dūna zerbait berri
Ikusten hait nahasirik.

Bizkarroi**15**

Horra nūn oso greütūrik
ezin edenak hartūrik
Behar ditiñagū jorratū
ez diñagū beste haütūrik.

Zarpail**16**

Maule hontan omen dira
ūngūrūneko gizenenak
Ikusten ditiñat hortxe
horien tripa ederrenak.

Bizkarroi**17**

Ütz ditzagūn lehertzera
altxa detzagūn aztalak
Beti horien trūfatzeko
egitez eginahalak.

Satanak su emaile**Zarpail****14**

Zer kontatzen dun, Bizkarroi,
noblezia ikusirik?
Entzun duna zerbait berri?
Ikusten haut nahasirik.

Bizkarroi**15**

Horra non oso nazkaturik,
ezin edenak harturik.
Behar ditinagu jorratu.
Ez dinagu beste hauturik.

Zarpail**16**

Maule honetan omen dira
inguruneko gizenenak.
Ikusten ditinat hortxe
horien tripa ederrenak.

Bizkarroi**17**

Utz ditzagun lehertzera.
Altxa ditzagun aztalak.
Beti horien trufatzeko
egitez eginahalak.

entzun duna: entzun al dun**ezin eden:** ezinegon**hautu:** aukera**aztal:** orpo
trufatu: burlatu

1. JELKALDIA

1727ko azaroaren 15a. Gazteak Mauletik abiatzen dira erregearen artillerian sartzeko.

Jacques Belakoa**18**

Egünaldi eder hontan heben gira jüntatürrik Geroaren aipatzeko denek ahal haütatürrik.

Belako zalduna**19**

Aita et(a) ama maiteak hartü düt deliberoa Lehen bai lehen armadan ikusten beitätü geroa.

Constance Hudelot-Belakoa**20**

Jakin berri düt semea gaüza bat lotsagarria Etxeki nahi düzüla Erregeren artilleria!

Jacques Belakoa**21**

Baldintza goratüko düzü Erregeren zerbütxüan Eta bidaje eginen erresuma hanitxetan.

Jean-Pierre Théodore Belakoa**22**

Nik ere ber xedea düt heben geroa da hersi Aitonen seme girela behar dügü erakutsi.

Marie Bordegarai**23**

Egün plazer handia dit ikustez horien xedea Odol honeko beítira handi dükee zortea.

Philippe-Firmin Belakoa**24**

Geroa aipatzen beita ni apez edo kalonje Ezinbestean abiatzeko Jinkoa dateke jüje.

1. JELKALDIA**Jacques Belakoa****18**

Egunaldi eder honetan hemen gara juntaturik. Geroaren aipatzeko denek hala hautaturik.

Belako zalduna**19**

Aita eta ama maiteak, hartu dut deliberoa, lehenbailehen armadan ikusten baitut geroa.

Constance Hudelot-Belakoa**20**

Jakin berri dut, semea, gauza bat lotsagarria: atxiki nahi duzula Erregeren artilleria!

Jacques Belakoa**21**

Baldintza goratuko duzu erregeren zerbitzuan, eta bidaia eginen erresuma anitzetan.

Jean-Pierre Théodore Belakoa**22**

Nik ere ber xedea dut. Hemen geroa da hertsia. Aitoren seme garela behar dugu erakutsi.

Marie Bordegarai**23**

Egun plazer handia dut ikustez horien xedea. Odol oneko baitira, handi dukete zortea.

Philippe-Firmin Belakoa**24**

Geroa aipatzen baita, ni apaiz edo kalonje. Ezinbestean abiatzeko, Jainkoa dateke juje.

egunaldi: egun**delibero:** erabaki**lotsagarri:** beldurgarri**baldintza:** egoera**xede:** helburu
hertsia: estu
aitoren seme: noble**xede:** helburu**dukete:** izango dute**dateke:** izango da
juje: epaile

Arnaud-François Belakoa

25

Enetako ere bardin
kalonje behin heltzea
Katedral handi batetan
fedearen hedatzea.

Constance Hudelot-Belakoa

26

Ama batek badü pena
haurrak behin abiatürrik
Bena xedeak ikustez
bihotza dit beroturik.

Arnaud-François Belakoa

25

Enetako ere, berdin;
kalonje behin heltzea.
Katedral handi batean
fedearen hedatzea.

Constance Hudelot-Belakoa

26

Ama batek badu pena
haurrak behin abiaturik,
baina xedeak ikustez
bihotza dut beroturik.

xede: helburu

2. JELKALDIA

1729ko urtea. Armadan, bizitza gogorra.

Belako zalduna**27**

Agintaria horra nüzü egün zuri aipatzera Zoin diren gure baldintzak gosea, hotza, sükarra.

Agintaria**28**

Güdarosteko bizia gogor behar da eraman Bihar güdüka güzien irabazteko xedean.

Belako zalduna**29**

Nihau sendotü berririk orai hortxe düt lagüna Ospitalean sartürük kasik ezin ezagüna.

Agintaria**30**

Jente xehearentako ez dügü heben lekürük Jakin ezak oraidanik armadan ez da haütürük.

Erizaina**31**

Güdari honek ahal dü ühantüra atzamanik Zer nahi eginagatik ez da hobekidürarik.

St Jacques**32**

Ene bizitze ahüla бүрүтzen da bat batetan Abiatzen niz zorigaitzez pausatzera zelüetan.

Apaiza**33**

Entzün beharko dügü erizaintsaren errana Bena Jinkoak noiznahi hartzen gütü beregana.

St Jacques**34**

Gizonaren izatea lür hontan hain penagarri Güdüka eta txarkeria hori zaikü izigarri.

2. JELKALDIA**Belako zalduna****27**

Agintaria, horra naiz egun zuri aipatzera zein diren gure baldintzak: gosea, hotza, sukarra.

Agintaria**28**

Gudarosteko bizia gogor behar da eraman, bihar guduka guztien irabazteko xedean.

Belako zalduna**29**

Nihaur sendotu berririk, orain hortxe dut laguna ospitalean sarturük, kasik ezin ezaguna.

Agintaria**30**

Jende xehearendako ez dugu hemen lekurük. Jakin ezak oraindanik: armadan ez da hauturük.

Erizaina**31**

Gudari honek ahal du hantura atzemanik. Zernahi eginagatik, ez da hobekidürarik.

St Jacques**32**

Ene bizitza ahula бурүтzen da bat-batetan. Abiatzen naiz zorigaitzez pausatzera zeruetan.

Apaiza**33**

Entzun beharko dugu erizaintsaren errana, baina Jainkoak noiznahi hartzen gaitu beregana.

St Jacques**34**

Gizonaren izatea lür honetan hain penagarri. Guduka eta txarkeria hori zaigu izugarri.

horra izan: etorri**baldintza:** egoera**nihaur:** neu**oraindanik:** aurrerantzean
hautu: aukera**hantura:** handitze**hobekidura:** hobekuntza**burutu:** amaitu**pausatu:** atsedean hartu**erizaintsa:** emakume erizain

35

Bizia zombaiten lüze
bestentako llabürregi
Ezinbestea hor beita
banoazü gaur goizegi.

35

Bizia zenbaiten luze,
bestendako laburregi.
Ezinbestea hor baita,
banoa gaur goizegi.

zenbaiten: zenbaitentzat

ezinbeste: patu

KANTA I

Herriko mina

a1

Egün oroz pensatzen düt, isilik sorleküari
Gaüko bihozminarekin, han baratü familiari
Aitaren besarkadari, amaren bihotz honari
Anai arreba güziek eman amodioari.

a2

Egün oroz gogoan düt igaran gaztetzarzüna
Oihü eta lasterkaldi, hanitxen ozentetzarzüna
Sagar eta gerezien ahoan gozotetzarzüna
Jente honen baratzean hartü aberastetzarzüna.

a3

Egün oroz asmatzen düt harat bürüz bidajea
Han egon direnekilan aipatzeko izatea
Gaüza txipi zonbaitekin baliatzeko bizitzea
Hatsartzeko sor leküan, zorihonaren aizea.

Errepika

Herriko mina, min etxekia,
denek dügü bihotzetan
Ikertzen gütü, goibel hegalez,
gardinki bigabostetan
Herriko mina, min barnatsüa,
hürüneko bidajetan
Lantatü düzü, betiereko,
lotura eskualdeetan.

KANTA I

Herriko mina

a1

Egun oroz pentsatzen dut isilik sorlekuari,
gaueko bihozminarekin han baratu familiari,
aitaren besarkadari, amaren bihotz onari,
anai-arreba guztiek eman amodioari.

a2

Egun oroz gogoan dut igaran gaztetasuna,
oihu eta lasterkaldi anitzen ozentasuna,
sagar eta gerezien ahoan gozotasuna,
jende onen baratzean hartu aberastasuna.

a3

Egun oroz asmatzen dut harat buruz bidaia,
han egon direnekin aipatzeko izatea,
gauza txiki zenbaitekin baliatzeko bizitzea,
hats hartzeko sorlekuan zorionaren haizea.

Errepika

Herriko mina, min atxikia,
denek dugu bihotzetan.
Ikertzen gaitu goibel hegalez
gardinki biga-bostetan.
Herriko mina, min barnatsua,
urruneko bidaietan.
Lantatu da betiereko
lotura eskualdeetan.

sorlekuari: sorlekuaz

baratu: geratu

familiari: familiaz

...ari: ...az

harat buruz: harantz

hats hartu: arnastu

ikertu: bisitatu

biga-bostetan: maiz, sarri

barnatsu: sakon

landatu: finaktu, ezarri

3. JELKALDIA

1731an, Belako zalduna Suedian.

Saumeryko markesa**36**

Zuri bürüz horra nüzü
erregeren izenean
Güdari hau nahi lüke
goitazale artillerian.

Castejako kondea**37**

Horren leküa dateke
hiriharresi taldean
Hola begia badüke
berritzapen güzietan.

Belako zalduna**38**

Suedeko artilleria
Eüropan da hoberena
Molde berri bat beitüe
guretzat ezezagüna.

Soldadu gaztea**39**

Lana hasi beno lehen
ikas ezak bizitzea
Eta kurri hadi heben
bildüko dük jakitatea.

Montiko markesa**40**

Poloniako Jaun erregeak
balüke zure beharra
Hebenko kargütik landa
behar düzü lagüntzera.

Belako zalduna**41**

Tai gabe lan eginen düt
segeretüa xilatzeke
Indardün berikuntzaren
züer gero eskentzeke.

3. JELKALDIA**Saumeryko markesa****36**

Zuri buruz horra naiz
erregeren izenean.
Gudari hau nahi luke
goitatzaille artillerian.

Castejako kondea**37**

Horren lekua dateke
hiri-harresi taldean.
Horrela begia baduke
berritzapen guztietan.

Belako zalduna**38**

Suediako artilleria
Europan da hoberena,
molde berri bat baitute
guretzat ezezaguna.

Soldadu gaztea**39**

Lana hasi baino lehen
ikas ezak bizitzea,
eta korri hadi hemen.
Bilduko duk jakitatea.

Montiko markesa**40**

Poloniako jaun erregeak
baluke zure beharra.
Hemengo kargutik landa
behar duzu laguntzera.

Belako zalduna**41**

Tai gabe lan eginen dut
sekretua zulatzeko,
indardun berrikuntzaren
zuei gero eskaintzeko.

zuri buruz: zureganantz
horra izan: etorri

goitatzaille: zelatatzaille

dateke: izango da

duke: izango du

korritu: ibili

behar duzu: joan behar duzu

tai gabe: gelditu gabe

4. JELKALDIA

1734an, gerra Poloniako erregegoaren oinordekotzagatik.

42

Odola sūtan dūgūla
erakuts dezagūn orai
Hozpera horien jateko
gero izateko garai.

Errusiako komandantea**43**

Ene soldado gūziak
hor dirade puxkatzeko
Beren aitzinean diren
denen hil hotz ezarteko.

44

Jakin ezazūe nor den
hebenko erregegeia
Auguste III zūzenez
eta ez zūen nausia.

Stanislao Leszczyński**45**

Auguste II erregea
orai berriki zentūrik
Ene lizate aulkia
hortarako niz heldūrik.

46

Gerla zabala beitūgū
beharko da gūdūkatū
Austriar eta Rūssiano
lekū hontarik kanporatū.

Montiko markesa**47**

Louis XV erregeak
igorten deikū armada
De Lamotte marexala
aski sarri heltzen bada.

Belako zalduna**48**

Rusiano gūdūkariak
zorigaitzez azkarrago
Hobe bertan jaun errege
gordatzea hūrrūnago!

Guduka, eta Bela, presoner.

Errusiako komandantea**49**

Atzamaiten balinbadūt
ezkapi den beldūrtūa
Erreko da ifernūan
En(e) ezpataz zilatūa.

4. JELKALDIA**42**

Odola sutan dugula
erakuts dezagun orain,
hozpera horien jateko;
gero izateko garai.

Errusiako komandantea**43**

Ene soldadu guztiak
hor dira puskatzeko,
beren aitzinean diren
denen hilotz ezartzeko.

44

Jakin ezazue nor den
hemengo erregegaia:
Augusto III.a zuzenez,
eta ez zuen nagusia.

Stanislao Leszczyński**45**

Augusto II.a erregea
orain berriki zendurik,
ene litzateke aulkia,
horretarako naiz heldurik.

46

Gerra zabala baitugu,
beharko da gudukatu.
Austriar eta errusiar
leku honetarik kanporatu.

Montiko markesa**47**

Luis XV.a erregeak
igortzen digu armada,
De Lamotte marexala
aski sarri heltzen bada.

Belako zalduna**48**

Errusiar gudulariak
zorigaitzez azkarrago.
Hobe bertan, jaun errege,
gordetzea urrunago!

Errusiako komandantea**49**

Atzematen baldin badut
eskapatu den beldurtia,
erreko da infernuan
ene ezpataz zulatua.

zuzen: eskubide**ene:** enetat, niretzat**igorri:** bidali
marexal: mariskal
sarri: berehala, laster**bertan:** berehala

5. JELKALDIA

Belako zaldunak ihes egiten du.

Federiko Gilen I.a**50**

Errezebhonez zütüet
gazelü hontan lagünak
Ateak dira zabalik
hor direlarik kideak.

Stanislao Leszczynski**51**

Botzik ere niz ikustez
zaldün hau salbazalea
Zeren eta hori esker
gorde nük zale zalea.

Belako zalduna**52**

Güdüka hanitx eginik
preso ezari gütüe
Bena ezkapir girade
loa pezükka beituë!

Stanislao Leszczynski**53**

Korte hontako bizia
beita hoberenatarik
Ontsa hizate gurekin
heben ez dükek gerlarik.

54

Üzten zütüegü orai
heben diren lagünekin
Badügü zer ikusteko
enbaxador zonbaitekin.

Belako zalduna**55**

Honarat heltüz geroztik
begiak ilüsitürük
Neskatila eijer honen
bihotza düit aidatürük.

Chauloyko kondesa**56**

Maitarzünaren ühaina
emeki da nitaratü
Zurekilan ninzalarik
lehentze niz ikaratü.

Danuta**57**

Denak girade honkirik
eta besta batekilan
Eginen dügü bi erri
goatzen algarrekilan.

5. JELKALDIA**Federiko Gilen I.a****50**

Errezibitzen zaituztet
gazelu honetan, lagunak.
Ateak dira zabalik,
hor direlarik kideak.

Stanislao Leszczynski**51**

Pozik ere naiz ikustez
zaldun hau, salbatzailea,
zeren eta horri esker
gorde nauk zalu-zalua.

Belako zalduna**52**

Guduka anitz eginik
preso ezarri gaituzte,
baina eskapatu gara,
loa pezükka baitute!

Stanislao Leszczynski**53**

Gorte honetako bizia
baita hoberenatarik,
ontsa haizateke gurekin.
Hemen ez dukek gerrarik.

54

Uzten zaituztegu orain
hemen diren lagunekin.
Badugu zer ikusteko
enbaxadore zenbaitekin.

Belako zalduna**55**

Honat helduz geroztik
begiak ilusiturük.
Neskatila eder honen
bihotza dut airaturük.

Chauloyko kondesa**56**

Maitasunaren uhina
emeki da nitaratu.
Zurekin nintzelarik,
lehentze naiz ikaratu.

Danuta**57**

Denak gara hunkiturük,
eta besta batekin
eginen dugu bi irri.
Goazen elkarrekilan.

zalu: arin, laster**pezu:** astun, pisu**haizateke:** izango haiz
dukek: izango dut**ilusitu:** ilusioz bete**airatu:** altxatu, suspertu**nitaratu:** niganatu**lehentze:** lehen aldiz

KANTA II

Zorionaren bila

b1

Zorihonaren bila, goizik abiatürük
Jente hanitx bezala, jakintza gabetarik
Barnetik tinkatürük, berantetsitürük
Ikusi beharko da, gaüza orotarik.

b2

Odol bero girade, gazte girelarik
Bihotzez hain aberats, ezaxol denetarik
Behar igaran aidez, ikertzapenatarik
Sendotzez nekeziatz, bihozminatarik.

b3

Behin bien artean, heltzen maitarzüna
Ageri da izarra, hortxe da lagüna
Hau date maitatüa, bihotz ezagüna
Bakoitzak ametsetan asmatü dügüna.

Errepika

Zorihonaren hatsa, amodio pindarra
Zure aize goxoak ekarten indarra
Gaztetarzunarekin heltzen zure garra
Pausatzez bihotzean zure deiadarra.

KANTA II

Zorionaren bila

b1

Zorionaren bila goizik abiaturik,
jende anitz bezala jakintza gaberik,
barnetik tinkaturik, berantetsirik,
ikusi beharko da gauza orotarik.

b2

Odol bero gara gazte garelarik,
bihotzez hain aberats, ezaxol denetarik.
Behar iragan airez ikertzapenatarik,
sendotzez nekeziatz bihozminatarik.

b3

Behin bien artean heltzen maitasuna,
ageri da izarra, hortxe da laguna.
Hau dateke maitatua, bihotz ezaguna,
bakoitzak ametsetan asmatu duguna.

Errepika

Zorionaren hatsa, amodio pindarra,
zure haize goxoak ekartzen indarra.
Gaztetasunarekin heltzen zure garra,
pausatzez bihotzean zure deiadarra.

airez: arin
ikertzapen: esplorazio

dateke: izango da

pindar: txinparta

pausatu: ipini

6. JELKALDIA

1738an, kanoi berri bat aurkezten du Belako zaldunak.

Luis XV.a**58**

Heben gira jüntaturik
iseiü baten egiteko
Kanu berri bat hontürrik
zer den ontsa ikusteko.

Castejako kondea**59**

Suedatik heltü zaikü
marrazkien egilea
Izentatüren deizüet
Belako zaldün gaztea.

Boiteulx de Gormond**60**

Lantü ahal izan dügü
kanu bat harrigarria
Bost tiroren partez hamar
minuta batez igorria.

André Hercule de Fleury**61**

Aitzinatze honekilan
etsaia da lotsatüko
Gure errege handia
bakeaz aberastüko.

Belako zalduna**62**

Ikustate honengatik
eskentzen deitzüt eskerrak
Bihotza zinez honkirik
agur bero ederrenak.

Luis XV.a**63**

Holako lana eginik
behar zütügü saristatü
Lieutenant colonel zira
egün bertan dit finkatü.

6. JELKALDIA**Luis XV.a****58**

Hemen gara juntaturik
entsegu baten egiteko.
Kanoi berri bat ondurik,
zer den ontsa ikusteko.

Castejako kondea**59**

Suediatik heldu zaigu
marrazkien egilea.
Izentatuko dut
Belako zaldun gaztea.

Boiteulx de Gormond**60**

Landatu ahal izan dugu
kanoi bat harrigarria.
Bost tiroren partez hamar
minutu batez igorria.

André Hercule de Fleury**61**

Aitzinatze honekin
etsaia da lotsatuko,
gure errege handia
bakeaz aberastuko.

Belako zalduna**62**

Ikustate honengatik
eskaintzen dizkizut eskerrak.
Bihotza zinez hunkiturik,
agur bero ederrenak.

Luis XV.a**63**

Honelako lana eginik,
behar zaitugu sariztatu.
Lotinant koronel zara,
egun bertan dut finkatu.

ontsa: ondo**landatu:** finkatu, ezarri**igorri:** bidali**aitzinatze:** aurrerakuntza
lotsatu: beldurtu**lotinant:** teniente
egun bertan: gaur bertan

7. JELKALDIA

1741ean, gerra Austriako erregegoaren oinordekotzagatik.

Luis XV.a**64**

Denak heben beitziraie
nahi deizüet aipatü
Austriako egoera
zinez beita andeatü.

65

Gerlan sar edo bazter egon
orano ez düt haütatü
Aholkü hon nahi nuke
Behar beität deliberatü.

André Hercule de Fleury**66**

Gerlak ez dü deusere honik
hobe da diplomazia
Enetako ontsa lizate
haiekila mintzatzea.

Belle-Isle**67**

Habsbourg familia tzarra
beti izan da etsaia
Ezpata horiek merexi
ükeiteko zaflaldia.

Luis XV.a**68**

Marexal izentatürik
zütan badüt fedea
Gizon eta kanueki
har ezazüe bidea.

69

Bela orai berri ere
San Luisen zaldün izentatürik
Egin ezazü horiekilan
bihar güdüka zügünik.

Belako zalduna**70**

Erakutsiko dereizüt
güdükan trebe girela
Eta eüskaldün odola
Zainetan kurri düdala!

Frantzisko Lorenakoa**71**

Bost eskualde guri kontre
garraitüko zütüegü
Gü biga izanagatik
indarra handi beitätü.

7. JELKALDIA**Luis XV.a****64**

Denak hemen baitzarete,
nahi dizuet aipatu
Austriako egoera,
zinez baita andeatu.

65

Gerran sar edo bazter egon,
oraino ez dut hautatu.
Aholku on nahi nuke,
behar baitut deliberatu.

André Hercule de Fleury**66**

Gerrak ez du deus ere onik;
hobe da diplomazia.
Enetako ontsa litzateke
haiekin mintzatzea.

Belle-Isle**67**

Habsbourg familia tzarra
beti izan da etsaia.
Ezpata horiek merezi,
ukateko zaflaldia.

Luis XV.a**68**

Marexal izendaturik,
zutan badut fedea.
Gizon eta kanoiekin
har ezazue bidea.

69

Bela, orain berri ere
San Luisen zaldun izendaturik,
egin ezazu horiekin
bihar guduka zugunik.

Belako zalduna**70**

Erakutsiko dizut
gudukan trebe garela,
eta euskaldun odola
zainetan korri dudala!

Frantzisko Lorenakoa**71**

Bost eskualde guri kontra;
garaituko zaituztegu,
gu biga izanagatik
indarra handi baitugu.

andeatu: hondatu**oraino:** oraindino**deliberatu:** erabaki**enetako:** enetzat, niretzat**tzar:** txar, gaizto**zaflaldi:** astinaldi**marexal:** mariskal
zutan: zugan**orain berri:** berriki**zugun:** ausart**korritu:** ibili

Federiko II.a**72**

Armada pragmatikoa
gurekilan abiatürrik
Ez dügü deüseren lotsarik
gaurko zidee lehertürrik.

Guduka.

André Hercule de Fleury**73**

Aski güdüka eta hil
odol ixurtze denetan
Ürrentze batek behar dü
finka dezagün batetan.

Frantzisko Lorenakoa**74**

Gerokoz heltü girade
Silesia zuretako
Eta ni enperadore
hau ontsa da denentako.

Federiko II.a**75**

Hortan bakea dükegü
berri hau heda dezagün
Gerlaegile güzier
mezulariekin egün.

Federiko II.a**72**

Armada pragmatikoa
gurekin abiatürrik,
ez dugu deusen lotsarik;
gaurko zarete lehertürrik.

André Hercule de Fleury**73**

Aski guduka eta hil;
odol isurtze denetan.
Urrentze batek behar du;
finka dezagun bet-betan.

Frantzisko Lorenakoa**74**

Gerokotz, heldu gara.
Silesia zuretako,
eta ni enperadore.
Hau ontsa da denendako.

Federiko II.a**75**

Horretan bakea dukegu.
Berri hau heda diezaiegun
gerra-egile guztiei
mezulariekin egun.

lotsa: beldur**urrintze:** amaiera**bet-betan:** bat-batean, ja**gerokotz:** azkenean**ontsa:** ongi

KANTA III**Zer ekartzen du gerrak**

Zer ekarten dü gerlak,
zer, zer ekarten dü gerlak.

c1

Erresuma güziak, sortürük gerlatik
Zer düe balioa, holaxe heltürük?
Pena eta odola denetan hedatürük
Marrazki asegarritz denak honartürük.

c2

Jokü galdükerian hon bürüzagiak
Jakintza berekilan, ütsütürük txipiak
Kanuen aitzinean beti puskatüak
Lür buxi batentako dira zaflatüak.

c3

Ametsetarik jelki, behin oldartzeko
Txipi güziekilan, dena kanbiatzeko
Lüralde güzietan bake aipatzeko
Erabaki harzaleen bazter ezarteko.

Errepika

Gizona txerka ezak bakezko bidea
Bihotzaren indarra ospatzez bizia
Elkitzeko gogotik herra gazia
Behin bai behin, goza dezagün, gure gizartea.

Zer ekarten dü gerlak,
zer, zer ekarten dü gerlak.

KANTA III**Zer ekartzen du gerrak**

Zer ekartzen du gerrak?
Zer? Zer ekartzen du gerrak?

c1

Erresuma guztiak sorturik gerratik,
zer dute balioa horrelaxe heldurik?
Pena eta odola denetan hedaturik,
marrazki asegarritz denak onarturik.

c2

Joko galdukerian, on buruzagiak.
Jakintza berekin, itsuturik txikiak.
Kanoien aitzinean beti puskatuak.
Lür buxi batendako dira zaflatuak.

c3

Ametsetarik jalgi behin oldartzeko,
txiki guztiekin dena kanbiatzeko,
lüralde guztietan bake aipatzeko,
erabaki hartzaileen bazter ezartzeko.

Errepika

Gizona, xerka ezak bakezko bidea,
bihotzaren indarra, ospatzez bizia,
ilkitzeko gogotik herra gazia,
behin bai behin goza dezagun gure gizartea.

Zer ekartzen du gerrak?
Zer? Zer ekartzen du gerrak?

asegarri: nazkagarri

puxi: puska
zaflatu: astindu

jalgi: irten

xerkatu: bilatu
ilki: kendu, atera
herra: gorroto
behin bai behin:
behin betiko

8. JELKALDIA**Belako zalduna****76**

Plazer handia düt egün
zure ondoan izatez
Behin ikusiz geroztik
zurekin nintzan bihotzez.

77

Han hor ebili niz üsü
zure erriak hazirik
Zuretako maitarzüna
sekülako lantatürrik.

Chauloyko kondesa**78**

Jakin ezazü zaldüna
zure hitzen entzütetan
Oso nizala honkirik
bihotza beti zanpakan.

Belako zalduna**79**

Berriz joan beharko dit
nahi dereizüt hitzeman
Zurekilan bizitzea
berriz jinen nizanear.

Chauloyko kondesa**80**

Beti haidüru nizate
egün oroz pentsaketan
Eta gaüaren heltzean
gure beti otoitzetan.

Belako zalduna**81**

Opari hau har ezazü
enekilan izateko
Eta zuria lotüko
oritzapen ükeiteko.

8. JELKALDIA**Belako zalduna****76**

Plazer handia dut egun
zure ondoan izatez.
Behin ikusiz geroztik,
zurekin nintzen bihotzez.

77

Han-hor ibili naiz usu,
zure irriak hazirik,
zuretako maitasuna
sekulako landaturik.

Chauloyko kondesa**78**

Jakin ezazu, zalduna,
zure hitzen entzutean
oso naizela hunkiturik,
bihotza beti zanpaka.

Belako zalduna**79**

Berriz joan beharko dut.
Nahi dizut hitzeman
zurekin bizitzea
berriz jinen naizenean.

Chauloyko kondesa**80**

Beti aiduru naizateke
egun oroz pentsaketan,
eta gauaren heltzean
gure beti otoitzetan.

Belako zalduna**81**

Opari hau har ezazu
enekin izateko,
eta zurea lotuko
oroitzapen ukateko.

landatu: finkatu, ezarri**zanpaka:** taupaka**jin:** etorri**aiduru:** zain
naizateke: izango naiz**gure:** guretzat, gure alde

9. JELKALDIA

1745eko abenduaren 15a. Euskal boluntarioak batzen zaizkie.

Belako zalduna**82**

Erregeren izenean
Euskal Herrian altxatürik
Hebentxe da batailua
aitzinean herrokatürik.

83

Mila bat gazte dirade
zainbizi güdükatzeko
Eta ni horien бүрү
orai zure zerbütükö.

Maurizio Saxoniakoa**84**

Rocourt herrian bihar gerla
beharko han irabazi
Bestelan gure kontüa
izanen da zinez gazi.

Karlos Alexander Lorenakoa**85**

Artilleria eta kanu
badüt züer eskentzeko
Hoinezko den güdükari
baratüen ürrentzeko.

Belako zalduna**86**

Euskaldünak ez girade
tiroz ere gibeltüren
Arbasoen ohoretan
behin ere beldürtüren.

John Ligonier**87**

Behin Frantziatik joanik
bizi orai Inglesekin
Herra бүрүan sartürik
hor niz maleziarekin.

9. JELKALDIA**Belako zalduna****82**

Erregeren izenean
Euskal Herrian altxaturik,
hementxe da batailoia
aitzinean herronkatürik.

83

Mila bat gazte dira
zainbizi güdükatzeko,
eta ni horien buru,
orain zure zerbitzuko.

Maurizio Saxoniakoa**84**

Rocourt herrian bihar gerra.
Beharko han irabazi.
Bestelan, gure kontua
izanen da zinez gazi.

Karlos Alexander Lorenakoa**85**

Artilleria eta kanoi
badut zuei eskaintzeko,
oinezko den güdükari
baratuen ürrentzeko.

Belako zalduna**86**

Euskaldunak ez gara
tiroz ere gibelatuko;
arbasoen ohoretan,
behin ere beldurtuko.

John Ligonier**87**

Behin Frantziatik joanik,
bizi orain ingelesekin.
Herra buruan sarturik,
hor naiz maleziarekin.

aitzin: aurre
herronkatu: lerrokatu

zainbizi: irrikatsu eta prest

baratu: gelditu
urrendu: amaitu

gibelatu: atzera egin

KANTA IV**Euskaldunekin gudukan****d1**

Euskaldunekin, han hor mündüan,
plazer dügü izatea
Bihotza bero, barnetik zintzo,
holako beita gaztea
Gure xokoa, denen artean,
maite dügü gozatzea
Ospa dezagün gure herria,
kanta gora bizitza.

d2

Euskaldunekin ez da nigarrik,
ez eta ere lotsarik
Güdükazale, eskualdeetan,
üsü hoberenatarik
Harremanetan bertan kausitürik,
gisa horrez altxatürik
Segi dezagün gure bidea,
izateko ezagütürik.

Errepika

Euskaldünak algarreki gira behin abiatü
Aize hotza gure jauntsi, behar zela bühürtü
Ez girade lagüneki, güdükatzez higatü
Oritzapen gogoetan, girade aberastü.

KANTA IV**Euskaldunekin gudukan****d1**

Euskaldunekin han-hor munduan
plazer dugu izatea.
Bihotza bero, barnetik zintzo,
horrelako baita gaztea.
Gure txokoa denen artean
maite dugu gozatzea.
Ospa dezagun gure herria,
kanta gora bizitza.

d2

Euskaldunekin ez da negarrik,
ez eta ere lotsarik.
Gudukatzaile eskualdeetan
usu hoberenatarik.
Harremanetan bertan kausiturik,
gisa horretaz altxaturik.
Segi dezagun gure bidea,
izateko ezaguturik.

Errepika

Euskaldunak elkarrekin gara behin abiatu,
haize hotza gure jantzi behar zela bihurtu.
Ez gara lagunekin gudukatzez higatu;
oroitzapen-gogoetan gara aberastu.

lotsa: beldur**usu:** maiz, sarritan**higatu:** ahitu, hondatu

10. JELKALDIA

Frantziako handizkien emazteak.

Hutsegin**88**

Jakin düzüe berria
badira orai Frantzian
Bretu, euskaldün, korsikar
sartürük gure armadan.

Leheneko**89**

Eskualde horietan
ebasle franko badira
Presontegiak beteak
oro asetürük gira.

Buhet**90**

Egün oroz ari dira
beti beren mintzaje
Beharko dügü salatü
erregeren aitzinean.

Gotor**91**

Mintzaje bat aski arren
Frantziako erresuman
Debeka detzagün denak
lege zombaiten menean.

Pitotx**92**

Nahasi beharko dira
bortxak dütü kanbiatüren
Hola frantsesa dizüe
beren artean baliatüren.

Gibelka**93**

Gainea hartü gabetarik
zapa detzagün segidan
Gerla baten alorrean
zentürük izan ditean.

Mututx**94**

Orai banoazü bertan
gaüza horien aipatzera
Beraz errege jaunari
galtoaren egitera.

Peku**95**

Artean goza gitean
gatzelü eder horietan
Jente xeheaz baliatzez
egoera eder hontan.

10. JELKALDIA**Hutsegin****88**

Jakin duzue berria?
Badira orain Frantzian
bretoi, euskaldun, korsikar
sarturik gure armadan.

Leheneko**89**

Eskualde horietan
ebasle franko badira.
Presondegiak beteak,
oro aserik gara.

Buhet**90**

Egun oroz ari dira
beti beren mintzairan.
Beharko dugu salatu
erregeren aitzinean.

Gotor**91**

Mintzaira bat aski, arren,
Frantziako erresuman.
Debeka ditzagun denak
lege zenbaiten mendean.

Pitotx**92**

Nahasi beharko dira.
Bortxak ditu kanbiatuko.
Horrela frantsesa dute
beren artean baliatuko.

Gibelka**93**

Gaina hartu gabetarik
zapa ditzagun segidan,
gerra baten alorrean
zendurik izan daitezten.

Mututx**94**

Orain banoa bertan
gauza horien aipatzera.
Beraz, errege jaunari
galtoaren egitera.

Peku**95**

Artean, goza gaitzen
gatzelu eder horietan,
jende xeheaz baliatzez
egoera eder honetan.

ebasle: lapur**mintzaira:** hizkuntza**aitzin:** aurre**arren:** bada**bortxa:** indarkeria**zapatu:** zanpatu**zendu:** hil**bertan:** berehala**galto:** eskaera**artean:** bien bitartean

11. JELKALDIA

1749an, Parisen auzia. Belako zalduna preso ezarten dute.

**Jean-Baptiste François Villemurkoa
96**

Auzitegiko epaile dena behar düt xuritu
Zuen arteko eztabada behar deitazüet klartü.

**Saint-Christauko zalduna
97**

Egün zure aitzinean salatzera horra nüzü
Jauntto honen küdeaketa aferan nahasi beitu.

**Belako zalduna
98**

Gezurra dük barreatzen bekaixteria gordatzeko
Sartüren deiat ezpata larderiaren sendotzeko.

**Saint-Christauko zalduna
99**

Kesan hartü dü largoki apaltü denen soldata
Eta euskal güdariak koditü hola ixilka.

**Euskaldun gudaria
100**

Betidanik horientako izan gira laidogarri
Euskaldünak girelakoz hori zaükü asegarri.

**Jean-Baptiste François Villemurkoa
101**

Orai aski argüdia behar düzüe anpletü
Artean ikerraldia ontsa beitu aitzinatü.

102

Zaldünak ez dü ebatsi gaitzigarri baizik izan
Hortako sei hilabete dateke presontegian.

Belako zalduna Fort-l'Évêque presondegian sartzen dute.

11. JELKALDIA**Jean-Baptiste François Villemurkoa
96**

Auzitegiko epaile, dena behar dut zuritu.
Zuen arteko eztabaida behar dizuet klartu.

**Saint-Christauko zalduna
97**

Egun, zure aitzinean salatzera horra naiz
jauntto honen küdeaketa, aferan nahasi baitu.

**Belako zalduna
98**

Gezurra duk barreatzen bekaizkeria gordetzeko.
Sartuko diat ezpata larderiaren sendatzeko.

**Saint-Christauko zalduna
99**

Kaxan hartu du largoki; apaldu denen soldata,
eta euskal güdariak koditu horrela isilka.

**Euskaldun gudaria
100**

Betidanik horiendako izan gara laidogarri
euskaldunak garelakoz. Hori zaigu asegarri.

**Jean-Baptiste François Villemurkoa
101**

Orain aski argudia; behar duzue anpletu,
artean ikerraldia ontsa baitut aitzinatü.

102

Zaldunak ez du ebatsi; gaitzigarri baizik izan.
Hortako, sei hilabete dateke presondegian.

klartu: argitu

aitzin: aurre
horra izan: etorri

bekaizkeria: inbidia
gorde: ezkutatu
lardia: agintekeria

largoki: lasaiki, ugariro
apaldu: jaitsi

koditu: zirikatu

laidogarri: iraingarri

asegarri: nekarazle

anpletu: lasaitu
ikerraldi: ikerketa
aitzinatu: aurreratu

ebatsi: lapurtu
gaitzigarri: iraingarri
hortako: horregatik
dateke: izango da

12. JELKALDIA

1751ko maiatzaren 5a. De Colliers
gaztelua erosten du Belako zaldunak.

Belako zalduna**103**

Berri honez horra gira
egün züen ikustera
Entzünik saltzeko dela
zure gaztelü ederra.

Pissonnet de Bellefonds anderea**104**

Goresmenak bihotzetik
hola biak plantatürrik
Heben goxo da bizia
izadiak üngüratürrik.

François Pissonnet de Bellefonds**105**

Preziosa honartürrik
giltzak zureak dirade
Ez balinbada besterik
hortan baratzen girade.

Chauloyko kondesa**106**

Gerokoz ene ametsak
egün dirade beterik
Bizitüren beikirade
algarrekin horiengatik.

Belako zalduna**107**

Ene kontesa maitea
gaztelü hau guretako
izanen da paradisü
zorihonaren goxatzeko.

108

Ezarriko düt sartzean
bortaren aldegainan
"Heben laketurik ontsa nago"
arbasoen mintzajea.

12. JELKALDIA**Belako zalduna****103**

Berri onez horra gara
egun zuen ikustera,
entzunik saltzeko dela
zure gaztelu ederra.

Pissonnet de Bellefonds anderea**104**

Goresmenak bihotzetik,
horrela biak plantaturik.
Hemen goxo da bizia,
izadiak inguratürrik.

François Pissonnet de Bellefonds**105**

Preziosa onartürrik,
giltzak zureak dira.
Ez baldin bada besterik,
horretan baratzen gara.

Chauloyko kondesa**106**

Gerokoz ene ametsak
egun dira beterik,
biziko baikara
elkarrekin horiengatik.

Belako zalduna**107**

Ene kondesa maitea,
gaztelu hau guretako
izanen da paradisu,
zorionaren goxatzeko.

108

Ezarriko dut sartzean
bortaren aldegainan:
"Hemen laketurik ontsa nago"
arbasoen mintzairan.

horra izan: etorri**plantatu:** jarri**baratu:** geratu

borta: ate
aldegainan: goiko aldean
laketu: atsegin hartu

Kanta V Zurekin laketurik

e1

Zurekilan laketurik
Eta orai oharturik
Bizi niz aberasturik
Hanitx dohatsü helturik
Amodio nitaraturik
Denak zuri eskenturik.

e2

Zurekilan bizitzea
Algarrekin abiatzea
Ehün aldiz pensatzea
Elearen puskatzea
Erriaren gozatzea
Egiazki handitzea.

Errepika

Itsas ühain bat bezala, heltü zirade nitara
Amodioz gaintiturik, honki jin ene izarra
Algar entelegatzea, hortan da gure indarra
Denbora joan dadila, egonen zira bakarra.

e3

Zurekilan nekezia
Beti dateke hezia
Agitzen zait asmatzea
Haur saldo baten haztea
Berotarzün zabaltzea
Gaüza honen baliatzea.

e4

Zurekilan zohardia
Goizian iratzartzea
Lili baten ikustea
Txori baten entzütea
Leinürüaz berotzea
Geroaren margotzea.

Kanta V Zurekin laketurik

e1

Zurekin laketurik
eta orain oharturik,
bizi naiz aberasturik,
anitz dohatsu heldurik,
amodio nitaraturik
denak zuri eskainirik.

e2

Zurekin bizitzea:
elkarrekin abiatzea,
ehun aldiz pensatzea,
elearen puskatzea,
irriaren gozatzea,
egiazki handitzea.

Errepika

Itsas uhin bat bezala, heldu zara nitara.
Amodioz gaintiturik, ongi jin, ene izarra.
Elkar entelegatzea, horretan da gure indarra.
Denbora joan dadila, egonen zara bakarra.

e3

Zurekin nekezia
beti dateke hezia.
Agitzen zait asmatzea
haur-saldo baten haztea,
berotasun zabaltzea,
gauza onen baliatzea.

e4

Zurekin zohardia,
goizean iratzartzea,
lili baten ikustea,
txori baten entzutea,
leinuruaz berotzea,
geroaren margotzea.

laketu: atsegin hartu

jin: etorri
entelegatu: ulertu

dateke: izango da
agitu: gertatu
saldo: talde

zohardi: zeru izarratu

lili: lore

leinuru; izpi

13. JELKALDIA

Belako zaldunak armada uzten du, eta Zuberoara itzuli.

Belako zalduna**109**

Aski güdüka eginik
jükütria ikusirik
Armatatik baztertzea
egün niz deliberatürik.

110

Gure alaba txipia
ikusiren düt handitzen
Eta idazlan batetan
ahal nizateke hasten.

Chauloyko kondesa**111**

Zure idazlana düzü
aspaldidanik aipatzen
Orai denbora dükezü
ahal zirate abiatzen.

Belako zalduna**112**

Hebentik joanen gira
Xiberoan bizitzeko
Ene sorlekü maitea
züekin besarkatzeko.

113

Erosiko dügü "Domeka"
Irabarneko herrian
Eta Santagrazin ere
"Prebenda" bortü ondoan.

Jeanne-Prudence Belakoa**114**

Gerokoz ikusiren düt
nola den Eüskal herria
Gure bizitze berria
goatzen denek goatzera.

13. JELKALDIA**Belako zalduna****109**

Aski guduka eginik,
jukutria ikusirik,
armadatik baztertzea
egun naiz deliberaturik.

110

Gure alaba txikia
ikusiko dut handitzen,
eta idazlan batean
ahal naizateke hasten.

Chauloyko kondesa**111**

Zure idazlana duzu
aspaldidanik aipatzen.
Orain denbora dukezu.
Ahal zarateke abiatzen.

Belako zalduna**112**

Hemendik joanen gara
Xiberoan bizitzeko,
ene sorleku maitea
züekin besarkatzeko.

113

Erosiko dugu "Domeka"
Irabarneko herrian,
eta Santagrazin ere,
"Prebenda" bortu ondoan.

Jeanne-Prudence Belakoa**114**

Gerokoz ikusiko dut
nola den Euskal Herria.
Gure bizitza berria
goazen denek goatzera.

jukutria: jokaldi makur**deliberatu:** erabaki**naizateke:** izango naiz**zarateke:** izango zara**bortu:** mendi

14. JELKALDIA

Belako zaldunak nahi ditu zuberotarrak lagundu.

Belako zalduna**115**

Maule Herri maitearen egün berriz ikusteak Altxatzen dereit bihotza eta berpizten asmüak.

116

Ene nahia dateke hebenkoen lagüntzea Xiberotar behardünen egün oroz altxatzea.

Chauloyko kondesa**117**

Honarar heltüz geroztik beti zirade lanean Gü aldiz orai goxoki bizi zure saihetsian.

118

Aipa izagüzü zoin den zure azken idazlana Ahal zünüke hedatzen ospatzeko eskülana.

Belako zalduna**119**

Güdari oritzapenak "Royal Cantabren" historia Gaüza horien üngürüan date idatz sail berria.

Chauloyko kondesa**120**

Ikusten dit badüzüla zer egin orai ausarki Ene lagüntza dükezü erran nahi deizüt klarki.

Jeanne-Prudence Belakoa**121**

Ene xedetan lizate eüskararen ikastea Hebenko jentearekin hobeki arrolatzea.

Françoise Bressy**122**

Eüskararen irakasteko lagün bat prest lizateke Zurekin harremanetan lehen bai lehen dateke.

14. JELKALDIA**Belako zalduna****115**

Maule herri maitearen egun berriz ikusteak altxatzen dit bihotza, eta berpizten asmoak.

116

Ene nahia dateke hemengoan laguntzea, xiberotar behardunen egun oroz altxatzea.

Chauloyko kondesa**117**

Honat helduz geroztik beti zara lanean. Gu, aldiz, orain gozoki bizi zure saihetsean.

118

Aipa iezaguzu zein den zure azken idazlana. Ahal zenuke hedatzen, ospatzeko eskulana.

Belako zalduna**119**

Gudari oroitzapenak, "Royal Cantabre"-ren historia. Gauza horien inguruan dateke idatz-sail berria.

Chauloyko kondesa**120**

Ikusten dut baduzula zer egin orain ausarki. Ene laguntza dukezu, erran nahi dizut klarki.

Jeanne-Prudence Belakoa**121**

Ene xedetan litzateke euskararen ikastea, hemengo jendearekin hobeki arrolatzea.

Françoise Bressy**122**

Euskararen irakasteko lagun bat prest litzateke. Zurekin harremanetan lehenbailehen dateke.

dateke: izango da**dateke:** izango da**dukezu:** izango duzu
klaki: argiro**xede:** helburu**arrolatu:**
konpondu, lagun izan**dateke:** izango da

Kattalina**123**

Heben züen zerbütuari
botzik nizate lanean
Bihotz honeko jenteak
asmatürrik aspaldian.

124

Haritzak bezala erroak
barna dütü euskaldünak
Hizkuntza horien lehena
ez dezagün ütztz galtzera.

Jeanne-Prudence Belakoa**125**

Eüskal mintzaje ederra

Kattalina**126**

Zuri esker menperatzea

Kattalina**127**

Eüropako zaharrena

Jeanne-Prudence Belakoa**128**

Enetako zer plazera!

Kattalina**123**

Hemen zuen zerbitzari,
pozik naizateke lanean.
Bihotz oneko jendeak
asmatürrik aspaldian.

124

Haritzak bezala, erroak
barna ditu euskaldunak.
Hizkuntza horien lehena
ez dezagun utz galtzera.

Jeanne-Prudence Belakoa**125**

Euskal mintzaira ederra

Kattalina**126**

zuri esker menperatzea,

Kattalina**127**

Europako zaharrena,

Jeanne-Prudence Belakoa**128**

enetako zer plazera!

naizateke: izango naiz

KANTA VI
Gure lurraldea

f1

Eder zira goizean, gure üngürüan
Ihitzza badelarik soroen gainean
Entzüten dügularik ardia mendian
Txorien kantorea oihanen erdian.

f2

Egün oroz goxo da heben ebiltea
Aberri berezia, denek maitatea
Begiesle hanitxen amets baratzea
Ospa dezagün beti zorihon bidea.

Errepika

Ikusten dügularik gure lüraldea
Izadi nahasia, orotan berdea
Hitzetan aberatsa, eder olerkia
Hatsartzen ez dügüa arbasoen aizea?

KANTA VI
Gure lurraldea

f1

Eder zara goizean, gure inguruan
ihintza badelarik soroen gainean,
entzuten dugularik ardia mendian,
txorien kantorea oihanen erdian.

f2

Egun oroz gozo da hemen ibiltzea,
aberri berezia, denek maitatua,
begiesle anitzen amets-baratzea.
Ospa dezagun beti zorion bidea.

Errepika

Ikusten dugularik gure lurraldea
—izadi nahasia, orotan berdea,
hitzetan aberatsa, eder olerkia—.
hats hartzen ez dugua arbasoen haizea?

kantore: kata
oihan: baso

begiesle: miresle

hats hartu: arnastu
dugua: al dugu

15. JELKALDIA

1766an, "Histoire des Basques" liburua eta hiztegia argitaratu nahi lituzke.

Belako zalduna**129**

Agur jakintsü handia egün Parisetik heltürük Behar dereizüt erakutsi lan bat esküz idatzirik.

130

Eüskaldünen historia orai berri idatzia Nahi nüke zabaltürük laüdatzeko sorterria.

Argitaratzailea**131**

Egiazki hau lan ederra eta zoinen aberatsa Eüskaldünen nortarzüna agertürük hitzez ontsa.

Belako zalduna**132**

Eüskal zazpi probintziak ontsa dira erakutsirik Arbasoen mintzajea ikerketan aipaturük.

Argitaratzailea**133**

Zabaltüko düüt bihotzez ez balinbada baztertürük Frantziako erregeak zorigaitzez debekatürük.

15. JELKALDIA**Belako zalduna****129**

Agur, jakintsu handia, egun Parisetik heldurük. Behar dizut erakutsi lan bat eskuz idatzirik.

130

Euskaldunen historia, orain berri idatzia. Nahi nuke zabaldurük laudatzeko sorterria.

Argitaratzailea**131**

Egiazki, hau lan ederra eta zeinen aberatsa. Euskaldunen nortasuna agerturük hitzez ontsa.

Belako zalduna**132**

Euskal zazpi probintziak ontsa dira erakutsirik. Arbasoen mintzaira ikerketan aipaturük.

Argitaratzailea**133**

Zabalduko dut bihotzez, ez baldin bada bazterturük, Frantziako erregeak zorigaitzez debekaturük.

orain berri: berriki

16. JELKALDIA

1766an, Frantziako handizkiak berriz agertzen dira.

Bihurri**134**

Berri gaixtoz horra nüzü
badirela hedatzeko
Idazle zorbaiten lanak
minorien ospatzeko

Hutsaldi**135**

Ertzo gira pakatzeko
besten kùltür aipatzeko!
Enetako idazleak
eremuüts ardüragabeko!

Nekezia**136**

Holako lan egileak
beharko dira zerratü
Eta idazlanak oro
Parisen bertan baztertü.

Friku**137**

Frantziako historia
ez da behar zatikatü
Galiar girade oro
behar dügü mailukatü!

Goseti**138**

Gerlarekin orai arte
egin dira erresumak
Azkarren legeak beraz
betidanik hoberenak!

Hotsegile**139**

Joan gitean halaber
gerla zorbaiten piztera
Erresuma txipietan
beti han hor nausitzera.

16. JELKALDIA**Bihurri****134**

Berri gaixtoz horra naiz,
badirela hedatzeko
idazle zorbaiten lanak
minorien ospatzeko.

Hutsaldi**135**

Ertzo gara pagatzeko
besteen kultura aipatzeko!
Enetako, idazleak
eremu huts arduragabeko!

Nekezia**136**

Honelako lan egileak
beharko dira zerratu,
eta idazlanak oro
Parisen bertan baztertu.

Friku**137**

Frantziako historia
ez da behar zatikatu.
Galiar gara oro.
Behar dugu mailukatu!

Goseti**138**

Gerrarekin orain arte
egin dira erresumak.
Azkarren legeak, beraz,
betidanik hoberenak!

Hotsegile**139**

Joan gaitezen, halaber,
gerra zorbaiten piztera,
erresuma txikietan
beti han-hor nagusitzera.

horra izan: etorri**ertzo:** zoro**zerratu:** kartzelatu**azkar:** indartsu

17. JELKALDIA

1767an, Belako zalduna Zuberoako Biltzarrean sartzen da.

Arraing**140**

Heben denen izenean
eskertzen zütügü jauna
Gure artean izatez
badükezü zer egina.

Belako zalduna**141**

Biltzar hontan nahi nuke
bi egoera aipatü
Basabürüa zertan den
behar dereizüet aurkeztü.

142

Larraineko oihanetan
bagoak zinez moztürük
Holako egileekin
bertan dirate gabetürük.

143

Eta Santa Grazin ere
lürak dütüe galdüren
Biarnesa da ebaslea
auzian gira sartüren.

Arraing**144**

Larrainen bi aroztegi
oihanaren desegiten
Legea dezagün zorrotz
hasiko dira behatzen.

Jauregi**145**

Landan hartü nahi düe
Zarraltzüneco aldea
Santa Graziko delarik
egiazko maltzürkeria!

146

Oro ados beikirade
zure dateke zaldüna
Epailearen kargüa
beti beitzira zügüna.

Belako zalduna**147**

Oraiko erabakia
banoazü hedatzera
Eta auzi baten ere
bertan plantan ezartera.

17. JELKALDIA**Arraing****140**

Hemen denen izenean
eskertzen zaitugu, jauna.
Gure artean izatez,
badukezu zer egina.

Belako zalduna**141**

Biltzar honetan nahi nuke
bi egoera aipatu.
Basaburua zertan den
behar dizuet aurkeztu.

142

Larraineko oihanetan
pagoak zinez mozturik.
Horrelako egileekin
bertan dira gabeturik.

143

Eta Santa Grazin ere,
lurrak dituzte galduko.
Bearnesa da ebaslea;
auzian gara sartuko.

Arraing**144**

Larrainen, bi aroztegi
oihanaren desegiten.
Legea dezagun zorrotz;
hasiko dira behatzen.

Jauregi**145**

Landan hartu nahi dute
Zarraltzüneco aldea,
Santa Grazikoa delarik
egiazko maltzurkeria!

146

Oro ados baikara,
zure dateke, zalduna,
epailearen kargua,
beti baitzara zuguna.

Belako zalduna**147**

Oraingo erabakia
banoa hedatzera,
eta auzi baten ere
bertan plantan ezartzera.

dukezu: izango duzu**oihan:** baso**behatu:** bete**zure:** zuretzat
dateke: izango da
zugun: ausart**plantan ezarri:** ezarri

18. JELKALDIA

1774an, milaka behi hil ziren Biarnon eta Euskal Herrian.

Johañe**148**

Egün gure üngürüan
zorigaitz izigarria
Behiak hiltzen orotan
hau da kozü lazgarria!

149

Gaüza honen aurkezteko
gütün bat egin dezagün
Frantziako erregeri
haren girela behardün.

Manex**150**

Beharrik gure ardiak
orano dira biziak
Bestela gose gorrian
lirate jente güziak.

151

Bretainia eskualdean
bada ezneko arraza
Behar dira sarrerazi
gero artzainkatü ontsa.

Belako zalduna**152**

Züen aholkü berria
behar dügü adelatü
Bretainiako hazleak
oraidanik lotüratü.

Marti**153**

Pena horien ahazteko
kanta dezagün gogotik
Bihar gure harremana
izanen da handitürik.

18. JELKALDIA**Johañe****148**

Egun gure inguruan
zorigaitz izugarria.
Behiak hiltzen orotan.
Hau da kutsu lazgarria!

149

Gauza honen aurkezteko,
gutun bat egin diezaiogun
Frantziako erregeri,
haren garela behardun.

Manex**150**

Beharrik, gure ardiak
oraino dira biziak,
bestela gose gorrian
lirateke jende guztiak.

151

Bretainia eskualdean
bada esneko arraza.
Behar dira sarrarazi;
gero artzainkatu ontsa.

Belako zalduna**152**

Zuen aholku berria
behar dugu adelatatu.
Bretainiako hazleak
oraidanik loturatu.

Marti**153**

Pena horien ahazteko
kanta dezagun gogotik.
Bihar gure harremana
izanen da handiturik.

kutsu: gaitz, izurrite**behardun:** behartsu**beharrik:** zorionez
oraino: oraindino**adelatu:** prestatu, apailatu**loturatu:** harremana egin

KANTA VII

Artzainak kantan

g1

Artzain hanitz mündüan, hedatürük mendian
Egoiten dira berak, nigarra begian
Aizea mezülari denez egarrían
Eüskal Herri maitea beren bihotzean.

g2

Zer lizate bizia hazkuntza gabetarik
Hirian jente franko bertan gosetürük
Ezagütza jinen da behin ohartürük
Artzaina behar dela noizbait honartürük.

g3

Egon gitean beraz ber alkartzazünean
Arbasoen xendetan, handitarzünean
Historiak beiteikü erreka lüzean
Emanen oparia gure bihotzean.

Errepika

Egün artzainak, kanta goratik, gure filosofia
Zelüan argi, bihotza laxü, güne paregabea
Ahaire batek emaiten deikü agoñü berezia
Kanta goratik egün artzainak gure libertatea.

KANTA VII

Artzainak kantan

g1

Artzain anitz munduan, hedaturik mendian.
Egoten dira berak negarra begian.
Haizea mezulari denez egarrían
Euskal Herri maitea beren bihotzean.

g2

Zer litzateke bizia hazkuntza gabetarik?
Hirian jende franko bertan goseturik.
Ezagutza jinen da behin oharturik
artzaina behar dela noizbait onarturik.

g3

Egon gaitezen, beraz, ber elkartasunean,
arbasoen xendetan, handitasunean,
historiak baitigu erreka luzean
emanen oparia gure bihotzean.

Errepika

Egun, artzainak, kanta goratik gure filosofia.
Zeruan argi, bihotza laxo, gune paregabea.
Ahaire batek ematen digu agoñü berezia
Kanta goratik egun, artzainak, gure libertatea.

egarri: edateko gogo

jin: etorri

laxo: asko, lokabe
ahaire: doinu
agoñu: adore, kemen

19. JELKALDIA

1779ean, Belako zaldunaren alaba ezkontzen da.

Belako zalduna**154**

Botzik niz egün ikustez
bi gazte horien urratsa
Elizan gaur ezkontzea
erabaki aberatsa!

Chauloyko kondesa**155**

Ez ginen behin ausartü
hola girade bizitü
Ezkontü gabe baratüz
isilka dügü kausitü.

Laurent de La Salle**156**

Züen alaba maitea
ene izar ejerrena
Hartzen deizüet eta
eskentzen diot zorihona.

Jeanne-Prudence Belakoa**157**

Ene geroa zurekin
ikusten düt aberatsa
Bihotzean bermagailü
saihetsean zure hatsa.

De La Salle ama**158**

Züen bizitze berria
izan dadila goxoa
Eüskaldün giro batetan
Zorihonez egiazkoa.

Apezpikua**159**

Enetako da kargüa
gazte horien ezkontzea
Jinkoaren familian
ospetsüki gaur sartzea.

160

Benedikatzen zütüet espos goxoak,
Aitaren, Semearen
eta Espiritü Saintüaren izenean, Amen.

19. JELKALDIA**Belako zalduna****154**

Pozik naiz egun ikustez
bi gazte horien urratsa.
Elizan gaur ezkontzea,
erabaki aberatsa!

Chauloyko kondesa**155**

Ez ginen behin ausartu,
honela gara bizitu.
Ezkondu gabe baratuz,
isilka dugu kausitu.

Laurent de La Salle**156**

Zuen alaba maitea,
ene izar ederrena,
hartzen dizuet eta
eskaintzen diot zoriona.

Jeanne-Prudence Belakoa**157**

Ene geroa zurekin
ikusten dut aberatsa.
Bihotzean bermagailu,
saihetsean zure hatsa.

De La Salle ama**158**

Zuen bizitza berria
izan dadila gozoa,
euskaldun giro batean,
zorionez egiazkoa.

Apezpikua**159**

Enetako da kargua
gazte horien ezkontzea,
Jainkoaren familian
ospetsuki gaur sartzea.

160

Bendeinkatzen zaituztet, espos gozoak,
Aitaren, Semearen
eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.

baratu: gelditu**kausitu:** arrakasta lortu**bermagailu:** euskarri**ospetsuki:** hotsandiko eran

KANTA VIII

Gazteen ezkontza

h1

Gaüza ospagarria, gazteen ezkontzea
 Bihotzeko bidean, heltü da maitea
 Kanta dezagün denek, gure ahaidea
 Altxatüz bihotzetik, gure oparia.

h2

Lüze izan dadila, züentzat bizia
 Jakitatez handia, borontatez betea
 Amodioarekilan, ametsez hazia
 Haur saldo batekilan, izarrez josia.

Errepika

Ekiak dü jagoiti, odeia zilatü
 Familia batetan, leinürü hedatü
 Gogoa ehün mila helbürüz betatü
 Maitarzün ekarpena, betikoz ospatü.

KANTA VIII

Gazteen ezkontza

h1

Gauza ospagarria gazteen ezkontzea.
 Bihotzeko bidean heldu da maitea.
 Kanta dezagun denek gure ahaidea,
 altxatuz bihotzetik gure oparia.

h2

Luze izan dadila zuentzat bizia.
 Jakitatez handia, borondatez betea.
 Amodioarekin, ametsez hazia.
 Haur saldo batekin, izarrez josia.

Errepika

Ekiak du jagoitik hodeia zulatu.
 Familia batean, leinuru hedatu.
 Gogoa ehun mila helburuz bete.
 Maitasun ekarpena betikoz ospatu.

jagoitik: dagoeneko
leinuru: izpi, distira

20. JELKALDIA

1789ean, Frantziako Iraultza.

Belako zalduna**161**

Frantzian iraultza dugu.
Euskal Herri eta Bearn
Nolako date geroa
Kargudunak dira ertzot!

162

Erresuma laster itorik,
guri dirade lotuko
Zer egin behar ote da
Frantziarik joan kanpo?

De Faye monsinorea**163**

Apezküntearentako
ezarririk "zin xurria"
Ez dugu hau honartuko
haütatü düt joaitea.

Laurent de La Salle**164**

Heben egon behar dugu
hontarzünen begiratzeko
Apezkunte, noblezia
horier kontre altxatzeko.

Chauloyko kondesa**165**

Egün oroz penaturik
jakiten dütüt berriak
Alde orotan direla
oldartzen ari jenteak.

166

Bihotza düt flakaturik
indarrak ere galdurik
Jinkoaren saihetseala
ahal nüzü abiaturik!

Jeanne-Prudence Belakoa**167**

Zure beharra badugu
gurekin ama maitea
Etxeki otoi azkarra
deitüren düt bedezia.

Chauloyko kondesa**168**

Egün heldü zitadazüt
partitzeko tenorea
Banoazü bihotz arin
arbasoen ikustera.

20. JELKALDIA**Belako zalduna****161**

Frantzian iraultza dugu.
Euskal Herri eta Bearn:
nolako dateke geroa?
Kargudunak dira ertzot!

162

Erresuma laster itorik,
guri dira lotuko.
Zer egin behar ote da?
Frantziatik joan kanpo?

De Faye monsinorea**163**

Apaizkundearendako
ezarririk "zin zurria",
ez dugu hau onartuko.
Hautatu dut joatea.

Laurent de La Salle**164**

Hemen egon behar dugu
ondasunen begiratzeko.
Apaizkunde, noblezia,
horiei kontra altxatzeko.

Chauloyko kondesa**165**

Egun oroz penaturik,
jakiten ditut berriak.
Alde orotan direla
oldartzen ari jendeak.

166

Bihotza dut flakaturik,
indarrak ere galdurik.
Jainkoaren saihetsera
ahal naiz abiaturik!

Jeanne-Prudence Belakoa**167**

Zure beharra badugu
gurekin, ama maitea.
Atxiki, otoi, azkarra.
Deituko dut bedezia.

Chauloyko kondesa**168**

Egun heldu zait
partitzeko tenorea.
Banoa, bihotz arin,
arbasoen ikustera.

dateke: izango da
ertzot: zoro

apaizkunde: klero**apaizkunde:** klero**saihets:** albo

azkar: sendotasun, indar
b edezi: sendagile

**De Faye monsinorea
169**

Igaraile gira heben
ez egin nigar lagünak
Jaunaren parkamentüa
merexi düke kontesak.

**Aingeruak
170**

Jinkoaren esküinean
bihotz hona gaur dateke
Aingürüen üngürüan
har ezazü otoi bake.

171

Zure bizia eder zen
sar zite orai paüsüan
Eman fedearen hatsa
heldzen direner zelüan.

**De Faye monsinorea
169**

Igarotzaile gara hemen.
Ez egin negar, lagunak.
Jaunaren barkamendua
merezi duke kondesak.

**Aingeruak
170**

Jainkoaren eskuinean
bihotz ona gaur dateke.
Aingeruen inguruan
har ezazu, otoi, bake.

171

Zure bizia eder zen.
Sar zaitetz orain pausuan.
Eman fedearen hatsa
heldzen direnei zeruan.

duke: izango du**dateke:** izango da**pausu:** atsedan

21. JELKALDIA

1793an, Belako zalduna berriz preso.

Belako zalduna**172**

Apez hanitx ezkapirik
errege gillotinatürük
Euskaldünak kanporatürük
bizi girade harritürük!

Laurent de La Salle**173**

Euskal Herrian dütüe
izenak oso frantsesten
Herri, karrika güziak
omen feodal baitziren!

Beauregard**174**

Noiznahi heltüren dira
hontarzünen bahitzera
Gordetzen düt gauza zombait
eta Henri IVen küña!

Lamaignière**175**

Kopia zombait egin düt
hontarzünen ordaitzeko
Gure ondare güzia
prest dira errearazteko.

Jakobinoen komandantea agertzen da.

Komandantea**176**

Hebenko aristokratak
hontarzünez kalkatürük
Pakatü behar düzüe
presontegian sartürük.

Peazgoratzailea**177**

Ezinfidazko direnen
horra terrore legala
Ezaba dezagün bertan
lehenekoen ohidüra!

Komandantea**178**

Euskaldün eta biarnesak
biak zaküan sartürük
Departamentü berrian
laster dirate hurtürük!

21. JELKALDIA**Belako zalduna****172**

Apaiz anitz eskapaturik,
errege gillotinaturik,
euskaldunak kanporaturik,
bizi gara harriturik!

Laurent de La Salle**173**

Euskal Herrian dituzte
izenak oso frantsesten,
herri, karrika guztiak
omen feudal baitziren!

Beauregard**174**

Noiznahi helduko dira
ondasunen bahitzera.
Gordetzen dut gauza zombait,
eta Henrike IV.aren kuma!

Lamaignière**175**

Kopia zombait egin dut
ondasunen ordaintzeko.
Gure ondare guztia
prest dira errearazteko.

Komandantea**176**

Hemengo aristokratak
ondasunez galkaturik,
pagatu behar duzue
presontegian sartürük.

Peazgoratzailea**177**

Ezin fidazko direnen,
horra terrore legala.
Ezaba dezagun bertan
lehengoan ohitura!

Komandantea**178**

Euskaldun eta bearnesak
biak zakuan sartürük,
departamendu berrian
laster dira urturik!

feudalak omen baitziren

kuma: sehaska

galkatu: goraino bete

peazgoratzaile: iraultzaile

direnen: direnentzat

bertan: oraintxe bertan

Peazgoratzailea**179**

Euskaldunen mintzajea
nazionearen etsaia
Debekatzen dugu oso
eskolan erabiltea.

Akuilatzaileak**180**

Gizonak oro beldürti
aholkü behar hantzeko
Nahi güntüzke arrahein
Iraultzaren kausitzeko!

Belako zalduna**181**

Tiranoen gisa zidee
jakobinoak Franzian
Behin popülü txipia
oldartüren da malezian!

Belako zalduna presondegian sartzen
dute.

Peazgoratzailea**179**

Euskaldunen mintzaira,
nazioaren etsaia.
Debekatzen dugu oso
eskolan erabiltzea.

Akuilatzaileak**180**

Gizonak, oro beldurti;
aholku behar hantzeko.
Nahi genituzke arrahein,
iraultzaren kausitzeko!

Belako zalduna**181**

Tiranoen gisa zarete
jakobinoak Franzian.
Behin populu txikia
oldartuko da malezian!

hantu: kemena hartu
arrahein: arduratsu
kausitu: arrakasta izan

KANTA IX**Libertatearen xedea****i1**

Nahi dūgū egūn hatsartū zure aize goxoa
Harogaitzetik elki eta senditū zure alpoa
Gizartearen kanbiatzea lizate gure gogoa
Libertatearen xedea gizontarzūn ederrena
Jente oroen zohardia jin zite gaur guregana.

i2

Egoiten gira baztertūrik, zuri hūllantū gabetarik
Handikeria mezūlari, ustekeriek itzaltūrik
Hanixetan gure artean, parkamenak ahatzerik
Libertatearen xedea gizontarzūn ederrena
Jente oroen zohardia jin zite gaur guregana.

i3

Fededūn edo jinkogabe, bakoitzaren hitza hazle
Politika baliatzeko, nahi dūgū bakezale
Horien jarraikizale denak ez dūke sekūlan kalte!
Libertatearen xedea, gizontarzūn ederrena
Jente oroen zohardia jin zite gaur guregana.

KANTA IX**Libertatearen xedea****i1**

Nahi dugu egun hats hartu zure haize gozoa.
Aro gaitzetik ilki, eta sentitu zure alporea.
Gizartearen kanbiatzea litzateke gure gogoa.
Libertatearen xedea, gizontasun ederrena.
Jende oroen zohardia, jin zaitez gaur guregana.

i2

Egoten gara baztertirik, zuri hullandu gabetarik.
Handikeria mezulari, ustekeriek itzalirik.
Anitzetan gure artean barkamenak ahatzirik.
Libertatearen xedea, gizontasun ederrena.
Jende oroen zohardia, jin zaitez gaur guregana.

i3

Fededun edo jainkogabe, bakoitzaren hitza hazle.
Politika baliatzeko, nahi dugu bakezale.
Horien jarraitzaile denak ez duke sekulan kalte!
Libertatearen xedea, gizontasun ederrena.
Jende oroen zohardia, jin zaitez gaur guregana.

hats hartu: amastu
aro: eguraldi
ilki: irten
alpore: ufada epel
zohardi: zeru izartsu
jin: etorri

hullandu: hurbildu

ahatzi: ahaztu

duke: izango du

22. JELKALDIA

1796ko martxoaren 15ean, Belako zalduna Pauen hiltzen da.

Belako zalduna**182**

Hainbeste gaüza eginik
eta ere ikusirik
Behin heltzen da tenorea
gaur Jinkoak nau deiturik!

183

Ene azken nahietan
züer zerbaiten üztea
Hortxe dükezüe beraz
oro esküz idatzia.

184

Maulen diren behardüner
eman ondore güzia
Lehentarzüna dateke
eüskaldünen lagüntzea.

Jeanne-Prudence Belakoa**185**

Zure eüskaldüntarzüna
egiazki miragarri
Borontate honez zira
bihotzetik izigarri.

Apaiza**186**

Jinkoaren izenean
eskantzen deizüt oititze
Paradüsüko bidean
denentako beita hartze.

22. JELKALDIA**Belako zalduna****182**

Hainbeste gauza eginik
eta ere ikusirik,
behin heltzen da tenorea.
Gaur Jainkoak nau deiturik!

183

Ene azken nahietan,
züei zerbaiten uztea.
Hortxe dukezue, beraz,
oro eskuz idatzia.

184

Maulen diren behardunei
eman ondare guztia.
Lehentasuna dateke
euskaldunen laguntzea.

Jeanne-Prudence Belakoa**185**

Zure euskalduntasuna
egiazki miragarri.
Borontate onez zara
bihotzetik izugarri.

Apaiza**186**

Jainkoaren izenean
eskaintzen dizut oititza,
paradisuko bidean
denendako baita hartze.

dukezue: izango duzue**behardun:** behartsu**dateke:** izango da

KANTA X**Belako zaldunaren azken otoitza****j1**

Enetako bizitzea
Izan da oso betea
Orai heltzen partitzea
Hau beita denen zortea.

j2

Damü güti gabetarik
Honartzen düt abiatzea
Eskertzeko bihotzetik
Eüskaldünen aingürüa.

j3

Orai zelüan dateke
Ene izate berria
Jinkoaren lagüntzale
Bihotzez soegilea.

j4

Adio Eüskal Herria
Ene sorlekü maitea
Xiberotar haurridea
Eta ene familia.

Azken peredikua**187**

Eskerrik hanitx oroer
egünko jeia ikusirik
Trajeria honekila
gurekin bidajatürük.

188

Mauleko semea beitzen
eta idazle argia
Eskentü deiogü egün
hartze züan omenaldia.

189

Bere denbora güzian
izan da güdükaria
Historiaren jakile
herriari etxekia.

190

Izanik ere noblea
errotik zen eüskaldüna
Haren lana ikustean
agertzen da nortarzüna.

191

Iraültza heltü zelarik
oldartü zen gordeka
Bena bertan zerratürük
ütziren dü hor güdüka.

KANTA X**Belako zaldunaren azken otoitza****j1**

Enetako bizitza
izan da oso betea.
Orain heltzen partitzea,
hau baita denen zortea.

j2

Damu gutxi gabetarik
onartzen dut abiatzea,
eskertzeko bihotzetik
euskaldunen aingerua.

j3

Orain zeruan dateke
ene izate berria.
Jainkoaren laguntzaile,
bihotzez so-egilea.

j4

Adio, Euskal Herria,
ene sorleku maitea,
xiberotar haurridea
eta ene familia.

Azken peredikua**187**

Eskerrik anitz oroei
egungo jaia ikusirik,
tragedia honekin
gurekin bidaiaturik.

188

Mauleko semea baitzen
eta idazle argia,
eskaini diogu egun
hartze zuen omenaldia.

189

Bere denbora guztian
izan da gudukaria,
Historiaren jakile,
herriari atxikia.

190

Izanik ere noblea
errotik zen euskalduna.
Haren lana ikustean
agertzen da nortasuna.

191

Iraultza heldu zelarik
oldartu zen gordeka,
baina bertan zerraturik
utziko du hor gudukua.

dateke: izango da**so-egile:** zaindari**haurride:** senide**tragedia:** pastoral**hartze izan:** merezi**zerratu:** kartzelatu

192

Iraültzaren ondoramena
Euskal Herria zauriturik
Legeak eta biltzarrak
betikoz ezabatürrik.

193

Egün berriz esküratü?
beharko dügü aipatü
Arbasoen bideetan
behar bada aitzinatü.

194

Eüropako kontzertüan
beti gira saihetsian
Eüskaldünak girelarik
bi txapeldünen artean.

195

Indenpendentzia date
behin gure salbamena?
Popülüaren bozketarik
datekilarik sortüa?

196

Hortan üzten zütüegü
soegile agurgarriak
Gogozkatzera beroki
eta dener goraintziak.

192

Iraültzaren ondorena:
Euskal Herria zauriturik,
legeak eta biltzarrak
betikoz ezabaturik.

193

Egun berriz eskuratu?
Beharko dugu aipatu;
arbasoen bideetan
behar bada aitzinatu.

194

Europako kontzertuan
beti gara saihetsean,
euskaldunak garelarik
bi txapeldunen artean.

195

Indenpendentzia dateke
behin gure salbamena?
Populuaren bozketarik
datekeelarik sortua?

196

Horretan uzten zaituztegu,
so-egile agurgarriak,
gogozkatzera beroki.
Eta denei goraintziak.

ondoren: ondorio

aitzinatu: aurreratu

saihets: albo, bazter

dateke: izango da

bozka: boto

so-egile: ikusle

gogozkatu: gogoeta egin

KANTA XI

Maule

k1

Kürütxe Xuritik da ageri merkatü
Honkoiek begibistan düe hatü haütü
Espartiñaren fama hürrün da hedatü
Etxe-mozkinek airez ber ildoa hartü.

k2

Uhaitzak Basabürüan abio Hur Jüntan
Maule Lextarrera da, heltzen hur jauzitan
Pettarra zoharditan jarraikitzen builtan
Xiberoa ixurten Eüskal Herri baitan.

k3

Alkarteak lanean üdüri üiñürri
Kirol kültür jentarte, egün ikusgarri
Lagüntzale güziak zidee eskergarri
Herriarentako hau, zoin aküilagarri!

Errepika

Gaztelütik behera bertan hurtü odei
Bestetarik berriak, zaizgü hazkürri dei
Nortazünaren haatik, Eüskara da ekei
Herriak honki jina dener dü egingei.

KANTA XI

Maule

k1

Gurutze Zuritik da ageri merkatua.
Onkoiek begi bistan dute hatua hautu.
Espartinaren fama urrun da hedatu.
Etxe-mozkinek airez ber ildoa hartu.

k2

Uhaitzak Basabürüan abio ur-juntan;
Maule-Lextarrera da heltzen ur-jauzitan.
Pettarra zoharditan jarraikitzen bultan,
Xiberoa isurtzen Euskal Herri baitan.

k3

Alkarteak lanean iduri inurri;
Kirol, kultur jentarte, egun ikusgarri.
Laguntzaile guztiak zarete eskergarri,
herriarendako hau, zein akuilagarri!

Errepika

Gaztelutik behera bertan urtu hodeiak.
Bestetarik berriak zaizkigu hazkurri-dei.
Nortasunaren, haatik, euskara da ekai.
Herriak ongijina denei die egingai.

hatu: fardel

bulta: bultzada

hazkurri-dei: dei elikagarri

nortasunaren:

nortasunarentzat

ekai: materia, gai

ongijin: ongiatorri

egingai die: egingo die